



## INFORMAZIO- ETA ALERTA-PROTOKOLOA, 03 GERTAKARIETAN ERABILTZEKO

EAEko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sareak EAEko lurralde osoko ozono-mailazaintzen du, estazio-sarearen bitartez.

Urtarrilaren 28ko 102/2011 Errege Dekretuan (Airearen kalitatea hobetzeari buruzkoan) ezarritakoaren arabera, dekretu horretako I. eranskinean jasotako mailak gainditzen direnean, administrazio publikoek abisua eman behar diete herritarrei.

Honako ozono-maila hauek jasota daude eranskin horretan:

	Parametroa	Atalasea
<i>Informazio-atalasea</i>	Orduen batezbestekoa	180 µg/m <sup>3</sup>
<i>Alerta-atalasea</i>	Orduen batezbestekoa	240 µg/m <sup>3</sup>

### 1. UDAKO ZAINTEZE KANPAINA

Udako kanpaina ekainaren 1etik urriaren 1era egiten da. Ozono troposferikoa bigarren mailako kutsatzailea da, eta eguzki-erradiazioarekin batera agertzen da. Hori dela eta, udan bereziki zaintzen dira ozono-mailak, arazo handiagoko eremuetan kontrol espezifikoa eginda (baserrialdeetan eta goiko aldeetan).

Hauxe egiten da egunero:

- Erregistratu diren **ordu-batezbestekoak** berrikusten dira.
- Eragin handiena jasotzen duten zonetan **jarraipen berezia** egiten da.
- Kontrako meteorologia-baldintzak dauden egunetan (oskarbi dagoenean, bero handia egiten duenean eta egonkortasun atmosferikoa dagoenean), **sareko teknikariek 12:00etatik 15:00etara aztertzen dituzte ozono-datuak**. (Orduarte horretan mailen igoera ikusten baita).
- Aurreko egunean estazioen batean **120 µg/m<sup>3</sup> zortzi orduko balioa gainditzen bada**, honako **web-orri honetan argitaratuko da: "Euskadiko airearen kalitatea. Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren "Ozono Troposferikoa" buletina**, 120 µg/m<sup>3</sup> zortzi orduko-balioa gainditu duten estazioen balioekin. **Era berean, hurrengo 48 orduetarako aurreikusten diren ozono-balioen aurreikuspena jasotzen da buletinean.**



## 2. ZER NEURRI HARTU BEHAR DIREN 180 µg/m<sup>3</sup> INFORMAZION-ATALASEA GAINDITZEN DENEAN

Edozein estaziotan 180 µg/m<sup>3</sup>-ko maila gainditzen baldin bada, (X-AIR) aplikazioak mezu labur bat bidaliko die sareko teknikariei; eta Ingurumen Zuzendaritzaren webgunean abisu automatikoa jarriko da.

Halaber, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren eta Euskalmet Zerbitzuen teknikariei ere mezu labur bat bidaliko zaio, zer gertatu den jakin dezaten.

Hauxe da abisua emateko erabili behar den eredua:

Ozonoari buruzko informazioa emateko atalasea gainditu da (180 µg/m<sup>3</sup>) ID\_ESTAZIOA estazioan, gaurko ORDU\_NEURTUAN; eta batezbestekoa BALIO\_NEURTUA (O3) µg/m<sup>3</sup> da. Zortzi orduko balioa (ORDU\_NEURTUA) hauxe izan da: BALIO\_NEURTUA (O3 8 ordu).

### ERAGINDAKO BIZTANLERIA:

#### Biztanleria kalteberena:

- Bihotzeko edo arnas patologiak (asma, bronkitisa), diabetesa edo immunodepresioa dituzten pertsonak.
- 6 urtetik beherako haurrak eta 65 urtetik gorakoak
- Haurdun daudenak
- Beren lanagatik aire kutsatuaren eraginpean denbora asko ematen duten pertsona

### OSASUNAREN GAINEKO ONDORIOAK:

- **Ozonoarekiko kalteberak diren pertsonak arnas sintomak** (eztula, arnasa sakon hartzean mina) eta **arnasa hartzeko zailtasunak** izan ditzakete.
- **Gainerako biztanleek arnasketa-arazoaren bat** izan dezakete jarduera fisiko bizia eta luzea egitean

### OSASUNA BABESTEKO NEURRIAK:

**Ozonoarekiko kaltebera den taldeko pertsonak** honako hauek egin behar dituzte:

- **AIRE ZABALEKO jarduerak MURRIZTEA**, ahalegin fisiko handiak eta luzeak egin behar badira ozono-maila handiagoa denean, **batez ere egunaren erdiko orduetan**.
- Pertsona asmatikoeek eskura izan beharko lukete ohiko moduan erabiltzen duten inhalagailua.
- Arnasa hartzeko zailtasuna, ezgul handia edo bularreko mina izanez gero, joan medikuarengana edo larrialdi-zerbitzu batera.

**Gainerako biztanleek**, batez ere arnasketa-arazoak izanez gero, jarduera fisiko bizia eta luzea AIRE ZABALERA MUGATZEN saiatu behar dute, batez ere egunaren erdiko orduetan.

Informazio gehiago ikusteko honako webgunean:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/-h1-gomendioak-osasuna-babesteko-airean-ozono-maila-altu-dagonean-h1/web01-a3visol/eu/>

Horrez gain, lurraldeko osasun-teknikariei ere mezu labur bat bidaliko zaie, jakinaren gainean egon daitezten.



### 3. ZER NEURRI HARTU BEHAR DIREN 240 µg/m<sup>3</sup> ALERTA-ATALASEA GAINDITZEN DENEAN

Edozein estaziotan 240 µg/m<sup>3</sup>-ko maila gainditzen baldin bada, (X-AIR) aplikazioak mezu labur bat bidaliko die sareko teknikariei; eta Ingurumen Zuzendaritzaren webgunean abisu automatikoa jarriko da. Halaber, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari ere mezu labur bat bidaliko zaio, zer gertatu den jakin dezaten.

Hauxe da abisua emateko erabili behar den eredu:

Ozonoari buruzko informazioa emateko atalasea gainditu da (240 µg/m<sup>3</sup>) ID\_ESTAZIOA estazioan, gaurko ORDU\_NEURTUAN; eta batezbestekoa BALIO\_NEURTUA (O3) µg/m<sup>3</sup> da. Zortzi orduko balioa(ORDU\_NEURTUA) hauxe izan da: BALIO\_NEURTUA (O3 8 ordu).

#### ERAGINDAKO BIZTANLERIA:

Biztanleria kalteberenak jasan ditzake ondorioak gehien, baina gainerako biztanleek ere izan dezakete eragin txikiagoa:

- Bihotzeko edo arnas patologiak (asma, bronkitisa), diabetesa edo immunodepresioa dituzten pertsonak.
- 6 urtetik beherako haurrak eta 65 urtetik gorakoak
- Haurdun daudenak
- Beren lanagatik aire kutsatuaren eraginpean denbora asko ematen duten pertsona

#### OSASUNAREN GAINEKO ONDORIOAK:

- **Ozonoarekiko kalteberak** diren biztanleen artean, **litekeena da arnasketa-sintoma larriak eta arnasa hartzeko zailtasun larriak izatea.**
- **Gainerako biztanleek arnasketa-arazoak izan ditzakete** jarduera fisiko bizia eta luzea egiten dutenean.

#### OSASUNA BABESTEKO NEURRIAK:

- **Ozonoarekiko kalteberak** diren pertsonak **SAIHESTU EGIN BEHAR DUTE AIRE ZABALEKO AHALEGIN FISIKO GUZTIAK.**
- **Gainerako biztanleek**, batez ere arnasa hartzeko arazorik izanez gero, **ahalegin fisiko handiak eta luzeak AIRE ZABALERA MUGATUKO dituzte**, batez ere egunaren erdiko orduetan.

Informazio gehiago ikusteko honako webgunean:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/-h1-gomendioak-osasuna-babesteko-airean-ozono-maila-altu-dagonean-h1/web01-a3visol/eu/>



Gertakariak hiru ordu jarraian irauten badu —epe hori ezarrita dago epe laburreko jarduketei ekiteko—, aireko eta osasuneko lan-mahai bateratua bilduko da, meteorologia-aurreikuspenak aztertzeko eta egoeraren irismena zehazteko.

Aurreikuspenen arabera, litekeena baldin bada gertakaria berriro gertatzea eta kontzentrazioak  $240 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -koak izatea, egoera ukitutako udalei zuzenean jakinaraziko zaie

Honako datu hauek adierazi beharko dira:

Ozono-mailak gainditu egin du herritarrei alerta emateko atalasea ( $240 \mu\text{g}/\text{m}^3$ ):

Data:

Lurraldea:

Eragindako zonak:


Gertakariaren iraupenaren gaineko aurreikuspena: ...

Arnasten dugun airearen kalitateak behera egiten duenean, pertsona guztioi eragiten digu. Hala eta guztiz ere, talde batzuk egoera ahulagoan daude: umeak, arnasteko arazoak dituzten pertsona helduak eta pertsona zaharrak, besteak beste. Ozono-mailak handiak baldin badira, eta aire zabalean baldin bagaude, baliteke honako hauek gertatzea: eztula, eztarri lehorra, min torazikoa, muki gehiago sortzea, toraxaren zapalketa, bularrezurraren azpiko mina, ahulezia, ondoeza eta goragaleak. Hori dela eta, biztanle guztiei eta, bereziki, egoera ahulagoan dauden pertsonen gomendatzen diegu neurriak hartzeko.

**GOMENDIOAK:**

- Gertakariak iraun bitartean, arnasteko arazoak dituzten pertsonen, umeen eta pertsona zaharrek saiatu beharko dute ahalegin fisikorik edo aire zabaleko jarduerarik ez egiten; bereziki, 12:00etatik 20:00ak arte, edo intsolazio handieneko unetan.
- Era berean, herritarrek, oro har, saiatu beharko dute aire zabaleko ahaleginik edo jarduerarik ez egiten, gertakariak iraun bitartean; bereziki, intsolazio handieneko unetan.